



Bertsozale Elkartearen Berripapera

# Bertsozalea

www.bertsozale.eus

ESPAÑA	FRANKEO ITUNDUA
	FRANQUEO CONCERTADO
	ZK/NRO 37000126

2016ko ABENDUA - 179. zenbakia

## Abenduaren 17an jokatuko da Bilbon Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finala

**17:00etan hasiko da finala Bilbao Arenan; zortzi bertsolarik hartuko dute parte, eta txapeldun berria aterako da finaletik. Saiora joateko garraio publikoa erabiltzea aholkatzen da eta finalurrekoetan bezala umeen gunea izango da Miribillan.**

Bizkaiko Bertsolari Txapelketa 2016 azkenera heldu da. Udabarriko fasea, kanporaketak eta finalurrekoen ostean, finalera helduko da Txapelketa abenduaren 17an. Bilbon jokatuko da finala, Miribillako Bilbao Arenan, 17:00etatik aurrera. Ateak ordu eta erdi lehenago, 15:30ean, zabalduko dira.

eus orrialdean eskura daitezke. Bestetik, egunean bertan txarteldegia zabalduko da Bilbao Arenako kanpoko aldean, 14:00etatik aurrera. Betiko modura bazkideek eta gazteek deskontuak edukiko dituzte sarreretan.

### Garraio publikoa eta umeen gunea

Zortzi bertsolari ariko dira Bilbao Arenako oholtzan kantari: Etxahun Lekue, Jone Uria, Beñat Ugartetxea, Ibon Ajuriagojeaskoa, Miren Amuriza, Onintza Enbeita, Xabat Gallettebeitia eta Nerea Ibarzabal. Eta aurtan, gainera, txapeldun berria egongo da Bizkaiko Bertsolari Txapelketan, finalera heldu direnetatik inor ez delako sekula txapeldun izan. Irabazleari plazetako jarduna utzi berri duen Xabier Amurizak jantziko dio txapela.

Bilbao Arenara heltzeko, Bilbora heltzeko garraio publikoak eskaintzen dituen ohiko bideak erabiltzea gomendatzen da. Bilboko Metroan joango zarenontzat egokiena Alde Zaharreko geltokian geratzea da, Unamonoko atetik irten eta Miribillara oinez joatea.

Finaleko sarrerak eskuratzeko bi bide daude. Alde batetik, [www.bertsosarrerak](http://www.bertsosarrerak).

Finalurrekoetan bezala, finalean ere umeen gunea egongo da saioak irauten duen artean. Hezitzaileak egongo dira umeekin batera tarte horretan. Zerbitzu hau Amarauna Sareak, Astialdiko Elkartearen Arteko Sareak, eta Bertsozale

Elkarteak kudeatzen dute elkarlanean. Antolakuntzak eskertu egin gura du hezitzaileek egiten duten beharra.


Bizkaiko Bertsozale Elkarteak eskerrak eman gura dizkie txapelketaren antolakuntza beharretan aritzen diren guztiei, eurek barik ezingo litzateke-eta txapelketarik egin. Eskerrak, beraz, talde antolatzailerako kide, epaile, gai-jartzaile, komunikazio taldeko kide, bertso eskola, eta boluntario beharretan aritzen diren guzti-guztietan.



**SUSTRAI COLINA  
ACORDARREMENTERIA  
Baiona, 2016-XI-12  
Amaierako agurra**

Doinua: Eguzkiak urtzen du han goian

Hain justu Trumpek jo duenean mailuarekin iltzea  
Marine Le Penek amestu ote du Frantzia zuritzea?  
Hiztegitatik kendu ote du Rajoyk erabakitzea?  
Normala ote da poliziak senegaldar bat hiltzea?  
Neri tokatu zait muga ertzean sortu eta handitzea  
ta ikasi dut igurtzi ezkerro deusezten dela klitxea.  
Gure herri honek badaki zer den mututuei aditzea  
ta harresiak atxeman arren zubigintzan aritzea.



Txapeldun berria aterako da Bilboko finaletik.//XDZ



## Arabian eta Nafarroan ere laster hasiko dira txapelketak

2017an jokatuko dituzte Arabako eta Nafarroako Bertsolari Txapelketak. Lehenik, batean zein bestean, parte hartzaileak zehazteko kanporaketak jokatu dituzte: Arabian dagoeneko argitu da nortzuk arituko diren urtarrilean abiatuko den fasean eta Nafarroan, berriz, abenduaren 16an jokatu da kanporaketa.

35 bertsolarik eman dute izena 2017ko Nafarroako Bertsolari Txapelketan. Final-laurdenetako fasea otsailaren 18an hasiko da eta txapelketa apirilaren 8an amaituko da.

Hori baino lehen, kanporaketa saioak hasiera emango dio 2017ko Nafarroako Bertsolari Txapelketari. Bederatzi bertsolarik hartuko dute parte kanporaketan eta horietatik lauk lortuko dute final-laurdenetarako sailkatzea. Saioa abenduaren 16an jokatu da, Iruñeko Katakrazen, 19:00etan hasita. Sarrera doakoa da.

Kanporaketan parte hartuko dutenak Nafarroako Txapelketan lehen aldiz izena eman duten bertsolariak dira. Gainerakoak zuzenean sailkatuta daude otsailean abiatuko diren final-laurdenetarako. Sahats Aleman (Barañain), Ander Baiano (Barañain), Ainara Iregi (Barañain), Mintxo Astiz (Barañain), Joanes Illarregi (Leitza), Saats Karasatorre (Etxarri-Aranatz), Aitor Irastortza (Azpirotz), Joana Ziganda (Oskotz) eta Luis Mari Larreta (Aldatz) dira kanporaketan parte hartuko duten bertsolariak.

Nafarroako Bertsolari Txapelketaren inguruko gainerako

xehetasunak otsailaren hasieran emango ditu Nafarroako Bertsozale Elkartek.

### 18 bertsolari Arabian

Arabian azaroan amaitu zituzten Arabako Bertsolari Txapelketarako jokatu dituzten lau kanporaketa. Lau saio horien ondorioz 13 bertsolarik lortu dute sailkatzea eta horiei 2015eko bost finalista gehituko zaizkie. 18 bertsolarirekin abiatuko da txapelketa urtarrilean eta apirilaren 1ean amaituko da, Gasteizen.

Kanporaketen ondoren honakoak dira txapelketan kantatuko duten bertsolariak: Manex Agirre (Aramaio), Iñaki Viñaspre (Abetxuko), Oihane Perea (Gasteiz), Xabi Igoa (Aramaio), Zigor Enbeita (Abornikano), Asier Otamendi (Gasteiz), Andere Arriolabengoa (Aramaio), Iker Agirre (Aramaio), Rikardo Gz. de Durana (Oreitia), Paula Amilburu (Aramaio), Serapio Lopez (Baranbio), Peru Abarrategi (Aramaio), Izar Mendiguren (Laudio), Jagoba Apaolaza (Gasteiz), Felipe Zelaieta (Gasteiz), Ander Solozabal (Gasteiz), Asier Rubio (Luiando), Jon Ruiz de Pinedo (Zalduondo).



Abenduaren 16an jokatu da txapelketako kanporaketa Nafarroan.//XDZ

## Mundu bat ahoz aho dokumentala, kantu inprobisatuaren ahotsak

Abenduaren 3an Durangoko Azokan aurkeztu da dokumentala jendaurrean. DVDa salgai dago Lankuren webgunean eta, aurrerantzean, Euskal Herriko hainbat lekutan proiektzioak egitea da asmoa.

Mendez mende, idatziz transmititu izan da herri baten historia ofiziala; baina historia ofizialaren ertzetan badira bestelako ahots batzuk ere, ahoz aho hedatzen direnak eta inprobisatuak diren leku eta memento horri dagozkionak. Kantu inprobisatuak forma eta ahots ugari hartzen ditu munduko bazter bakoitzean, eta *Mundu bat ahoz aho* dokumentalak horiek ikus-entzunezko berean batzeko ariketa egin du.

Mintzola Ahozko Lantegiak garatu eta Lanku Kultur Zerbitzuek ekoizta, kantu inprobisatuak munduari begiratzeko talaia berezi bakoitzaren berri emango digu dokumentalak; besteak beste, kultura bakoitzak emakumearen presentziaz eta transmisioaz daukan ikuspegiaren berri izango dugu, sortzaileen bizipen pertsonalen eta hausnarketan bidez.

Horretarako, zazpi herrialdetako sortzaileen ahotsetan barrena bidaiatuko dugu: Euskal Herriko Maialen Lujanbio, Karen Owen galestarra, Herrialde Katalanetatik Mireia Mena, Kubako Yunet López, Zinar Ala kurdua, Mexikoko Las Alondras hirukoa - Diana Laura Hernández, Dana Sofía Limón, Rebeca Limón - eta Sardiniako Simone Monni. Gainera, Albert Casals, Ixiar Eizagirre, Begoña Guzmán eta Ruth Finneganen lekukotasunak ere jaso dira.

Abenduaren 3an eskaini zen Durangoko Azokan *Mundu bat ahoz aho*, Beñat Gaztelumendi zuzendariaren azalpenekin. Orain Lankuren atarian ([www.lanku.eus](http://www.lanku.eus)) salgai dago DVDa. Bestalde, zuen herriari proiektzioa antolatzeko asmoa izanez gero, jarri harremanetan Lankurekin: [lanku@lanku.eus](mailto:lanku@lanku.eus).

## Atsedenaldia Bertso Egunean

2018an itzuliko da Bertso Eguna; aurrerantzean Euskal Herrian zehar mugituko den egitasmo ibiltaria izango da.

Naturan gertatzen den moduan egitasmoek ziklo propioak dituzte. Egokitzapenak edo arnasaldiak beharrezkoak dira proiektuak garaietara egokitu eta aurrera egiteko. Horixe da Bertso Egunaren egungo egoera: ziklo bat ixten eta berri baten atarian aurkitzen da.

Arnasaldi bat hartu eta datorren urtean Bertso Eguna ez ospatzea erabaki du Bertsozale Elkartek. Ekimenaren 47 edizio Donostian ospatu ostean 2018. urtetik aurrera Euskal Herrian zehar ibiltaria izatea nahi dugu.

Urte hauetan guztietan Donostiako Udalarekin lankidetzan aritu da Bertsozale Elkartea eta biziki eskertu nahi du Donostiako Udalak Bertso Eguna gauzatzeko eskaintako laguntza zein hartu berri den erabakia ulertu eta pausoa emateko izandako eskuzabaltasuna.

### Aurrerantzean, ibiltari

Euskal Herri guztian eragin nahi luke Bertsozale Elkartek, lurraldetasun irizpideari lehentasuna emanaz. Horretarako, arnasaldiaren ostean, 2018. urtean itzuliko da Bertso Eguna. Urtero Euskal Herriko herri batean egingo da, alegia, herrialdez herrialde eta herriz herri ibiltaria izango da ekitaldia. Urte garaia mantentzeko asmoa du Bertsozale Elkartek; hasiera batean urtarriko azken asteburuan ospatuko da urtero.

Bertsozale Elkartek aurreratuak ditu lanak, ari da lantzen Bertso

Egun ibiltariaren lehen edizioaren gaia eta zehaztasun gehiago dituen emango ditu azalpen guztiak.

47 ediziotan Bertso Eguna asko aldatu da, garai ezberdinak izan ditu: bertsolariak omentzen ziren hasiera batean, ondoren, 1995. urtetik, saio esperimentalak eta tematikoak landu dira eta, orain, beste etapa baten atarian aurkitzen da.

Plaza ederra da Donostiakoa eta aurrerantzean ere bertsolaritzaz gozatzeko aukera dezente izango ditu bertsozaleak Donostian.



2018an molde berri batekin itzuliko da Bertso Eguna.//XDZ





## Puntua jarrita

JON GURRUTXAGA URBIETA

"Gazte gara gazte eta ez gaude konforme" aspaldikoa da esaldia eta berri-berria behar luke oraindik. Zuek lan mordoa egin zenuten eta neurri haundi batean horregatik goza ditzakegu zenbait sariketa eta plaza, Osinalde kasu.

Ezin ukatu eroso dela besteek egindakoa probestu eta hari zukua ateratzea, baina ez dakit ba, erosotasun honek berak ez ote dion gure sormen ahalmenari erasaten. Bertsoaritzan bezala alor askotan, jatekoa ahora eman zaigun generazioa izan gara gu. Munduaren gordina ezkutatu nahi izan digutenaren susmoa ere izan dut noizbat.

Kasuak eta kasuak daude baina ez dut uste gazteok bertsoaren plazan dugun egoera txistuka hasteko modukoa denik. "Bertsolari asko dago eta denentzat plazarik ez!" -entzuten da aspaldian. Eta bai, izan daiteke arrazoi on bat baina gure partetik egin genezakeena egin gabe uzten dugula ere pentsatzen dut. Elkarri plazak lotu, gazteentzako plazak sortu... baina gu gonapeko koitaduok "whatsapp" mezua edo deia noiz helduko zain.

Gogorregi epaitu dut gure generazioa agian, gogorregi epaitu dut neure burua, baina ikusten dudanari zor diot errespetu pixkat.


Guk zuek ez bezala, naturalki bizi izan dugu umetatik neskekin kantuan aritzea. Halere, plaza gaur egun emakume gazte batentzat zer den jakin nahi nuke, azalean bizi duen baten ahotik. Maialen Akizuk izango du zer ko(a)ntatua hemendik aurrera. Aurrera bolie!

# Koplak

## Ahots Baten, abenduaren 26an hasteko prest

Euskal Herri osoko 40 gaztek eman dute izena, jatorri anitzekoak: Altsasu, Angelu, Gasteiz, Lakuntza, Larraul, Lekuine, Eskoriatza, Ondarroa, Portugalete... Antzerkigintza, bertsoaritzza, kantagintza eta literatura landuko dituzte Zestoako egonaldian, eta aholkuak jasoko dituzte sortzaile ezagunen eskutik: Lekore literatur aldizkariaren sustatzaile den ITU banda, Joxe Mari Agirretxe "Porrotx" antzezlea, Anari kantaria, eta Miren Amuriza eta Julio Soto bertsoariak.

# Poto-Finixa



Zale berezi batzuentzako bertsoak

Xenpelar Dokumentazio Zentroa

## Urteroko batzarrei begira

Urtea hastearekin batera urteroko batzarrak egiteari ekingo diote herrialdeetako elkarteek. Araban izango da lehena, urtarrilaren 21ean, eta astebete beranduago, 28an, Gipuzkoaren txanda ailegatuko da. Otsailean, Nafarroak 4an egingo du berea eta Bertsoariaren Lagunak Elkarteak hilabete berean egingo du ziurrenik. Martxoaren 11n Bizkaia egingo du batzarra eta, azkenik Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko batzarra martxoaren 25ean izango da.

Kontratazioak eta informazio gehiago:

**Lanku**  
www.lanku.eus  
943 26 07 55

**TESTURAK**

TESTOTIK: TESTORA, ZABALETIK, ESTURA

LITERATURA TESTOTATIK ABANTUTAKO BERTSO SAKIA

**OHOLTZA**

BENAT KROLEM

**PETRESKU ETZI EZ ETSI!**

PUBLIZITATEA